El Censo Municipal de Gatos Comunitarios, es un instrumento de recopilación de datos e información sobre las colonias de gatos comunitarios existentes en Hondarribia en el que constaran entre otros los datos relativos a: códigos de identificación de los gatos comunitarios, las ubicaciones de las colonias felinas y la identificación de la persona alimentadora de cada colonia, entre otros.

Hondarribiko Udaleko Komunitateko Katuen Udal Errolda, informazio-tresna batenez, eguneratuta egon beharko da, eta, hala badagokio, dagozkion aldaketak egin beharko dira, bai koloniaren kudeatzaileek jakinarazita, bai udalaren egiaztapenaren ondorioz.

El Censo Municipal de Gatos Comunitarios del Ayuntamiento de Hondarribia, por tratarse de un instrumento de información, deberá estar actualizado incorporando las modificaciones que en su caso correspondan, bien por comunicación de los gestores de la colonia o derivada de la comprobación municipal.

25. artikulua.- Animaliak Babesteko Elkartekiko lankidetzaren sustatzea.

Artículo 25.- Promoción de la colaboración con Asociaciones Protectoras de Animales.

Udalak, ahal dela, Animaliak Babesteko Elkartekin lankidetzan jardungo du, komunitateko katuen populazioa Harrapaketa-Esterilizazioa-Itzulera metodoaren bidez kontrolatzen laguntzeko, errolda egiteko eta sozializatu daitezkeen edo sozializazio-fasean dauden katu komunitarioen adopzioa edo harrera sustatzeko.

El Ayuntamiento colaborará, preferentemente, mediante convenio de colaboración con Asociaciones Protectoras de animales para coadyuvar al interés municipal del control de la población de gatos comunitarios mediante el método CER, elaborar el censo, y para fomentar la adopción o acogida de aquellos gatos comunitarios sociables o en etapa de

socialización.

VI. TITULUA

LAGUN EGITEKO ETA ANIMALIAK BABESTEKO ETA DEFENDATZEKO NAHIZ HERRITARREN PARTAIDETZAKO ELKARTEAK ETA ERAKUNDEAK

26. artikulua.- Animaliak babesteko eta defendatzeko elkarteak eta erakundeak

1. Animaliak babesteko eta defendatzeko elkarte edo erakundetzat hartuko dira legez eraturako irabazi-asmorik gabeko elkarteak edo erakundeak, helburu nagusitzat animaliak defendatzea eta babestea dutenak.
2. Hondarribiko Udalak animaliak babesteko eta defendatzeko elkarte edo erakundeekin adostu ahal izango du animaliak babesteko eta defendatzeko edo jabetza arduraturako kontzientziatzeko jarduerak egitea, eta, zehazki, eginkizun hauek:
 - a) Dibulgazioko, kontzientziazioko, hezkuntzako eta prestakuntzako lanak eta ekintzak egitea, animaliak babesteko eta defendatzeko, animaliak abandonatzearen aurka borrokatzeko, eta animaliak identifikatzea, antzutzea eta arduraz edukitzea sustatzeko.
 - b) Galdutako edo abandonatutako animaliak edo titularrek entregatutakoak biltzen laguntzea.
 - c) Abandonatutako, konfiskatutako edo osasun-arrazoiengatik isolatuta egon behar duten animaliak gordetzeko, zaintzeko eta maneiatzeko instalazio publikoak erabiltzea.
 - d) Animaliak hirugarrenei lagatzea edo eutanasia kudeatzea, Ordenantza honetan ezarritako baldintzetan.
 - e) Animaliak etxean hartzeko beren etxeak kudeatzea.
 - f) Lagun egiteko animaliekin edo itxian dauden basa-animaliekin zerikusia duten establezimenduak ikuskatzeko ardura

TÍTULO VI

ASOCIACIONES Y ENTIDADES DE PROTECCIÓN Y DEFENSA DE LOS ANIMALES DE COMPAÑÍA Y PARTICIPACIÓN CIUDADANA

Artículo 26.- Asociaciones y entidades de protección y defensa de los animales

1. Serán consideradas asociaciones o entidades de protección y defensa de los animales aquellas que sin ánimo de lucro estén legalmente constituidas, cuya finalidad principal sea la defensa y protección de los animales.
2. El Ayuntamiento de Hondarribia podrá convenir con las asociaciones o entidades de protección y defensa de los animales la realización de actividades encaminadas a la protección y defensa de los animales o a la concienciación en tenencia responsable, y en concreto las siguientes funciones:
 - a) Realizar tareas y acciones de divulgación, concienciación, educación y formación encaminadas a la protección y defensa de los animales, lucha contra el abandono animal, fomento de la identificación, esterilización y tenencia responsable de animales.
 - b) Colaborar en la recogida de animales extraviados o abandonados, o que fueren entregados por sus titulares.
 - c) Utilizar las instalaciones públicas para el depósito, cuidado y manejo de animales abandonados, decomisados o que deban permanecer aislados por razones sanitarias.
 - d) Gestionar la cesión de animales a terceros o su eutanasia, en los términos establecidos en esta Ordenanza
 - e) Gestionar sus propios hogares de acogida de animales.
 - f) Colaborar con los agentes de la autoridad responsables de la inspección de los establecimientos relacionados con los

- duen agintaritzako agenteekin lankidetzan aritzea.
- g) Agintaritzaren agenteei laguntzea Ordenantza hau betetzearekin zerikusia duen guztian.
 - h) Animalien defentsa eta babeseraginkorragoa izan dadin egoki iritzitako neurri guztiak har daitezen proposatzea.
 - i) Hiriko basa-animalien populazioak eta hiriko katu-koloniak kudeatzea.
 - j) Arau-hauste edo delitu izan daitezkeen egitateak agintarien aurrean salatzea.
- animales de compañía, o silvestres en cautividad.
- g) Prestar su colaboración a los agentes de la autoridad en todo lo relacionado con el cumplimiento de la presente Ordenanza.
 - h) Proponer la adopción de cuantas medidas consideren oportunas para una más eficaz defensa y protección de los animales.
 - i) Gestionar poblaciones de animales silvestres urbanos y colonias felinas urbanas.
 - j) Denunciar ante las autoridades aquellos hechos que pudieran constituir una infracción o delito.

27. artikulua.- Lagun egiteko animaliak hartzeko etxeak

1. Harrera-etxeak animaliak babesteko elkartei edo animaliak biltzeko zentroi lotuta egongo dira beti. Elkarte edo zentro horiek pertsona fisiko bati eman ahal izango diote animalia, aldi baterako harrera-erregimenean, behin betiko adopziora arte behar dituen zaintza, arreta eta baldintza higieniko-sanitarioak berma ditzen. Horretarako, animalia bat hartzen duen pertsona fisikoak kontratu bat sinatu beharko du bilketa-zentroarekin edo animalia entregatzen dion erakunde babeslearekin, bai eta hari buruzko edozein gorabehera jakinarazi ere.
2. Harrera-etxe gisa jarduten duen pertsonak animalia behin-behineko zaintza izango du aldi baterako harrera-erregimenean, harrerari bere borondatez uko egiten dion arte, edo animalia titularrari ematen zaion arte, edo behin betiko adoptatzen den arte.
3. Araubide honetan animalia bat aldi baterako hartzen duen pertsona fisiko orori Ordenantza honetan aurreikusitako betebeharrak aplikatuko zaizkio.
4. Bilketa-zentroek eta elkarte babesleek harrera-etxeen erregistro-liburu eguneratua eramane beharko dute agintari eskudunen eskura. Liburu horretan, leku horri eta hartutako animalari buruzko datuak jasoko

Artículo 27.- Hogares de acogida de animales de compañía

1. Los hogares de acogida estarán siempre vinculados a asociaciones protectoras de animales o a centros de recogida de animales. Estas asociaciones o centros, podrán entregar al animal en régimen de acogida temporal a una persona física que pueda garantizar su cuidado, la atención y las condiciones higiénico-sanitarias que precise hasta su adopción definitiva. A tal efecto, la persona física que acoja un animal estará obligada a firmar un contrato con el centro de recogida o con la entidad protectora que se lo entrega, así como a comunicar cualquier incidencia con respecto al mismo.
2. La persona que actúe como hogar de acogida tendrá la custodia provisional del animal en régimen de acogida temporal hasta que renuncie voluntariamente a la acogida, o hasta que se entregue el animal a su titular, o hasta que se produzca su definitiva adopción.
3. A toda persona física que acoja temporalmente a un animal en este régimen le serán de aplicación las obligaciones previstas en la presente Ordenanza.
4. Los centros de recogida y las asociaciones protectoras deberán llevar un libro de registro actualizado de los hogares de acogida a disposición de las autoridades competentes, en el que se hará constar datos referentes tanto a

dira, bai eta harreran lagatako animaliak entregatzeko eta berreskuratzeko datak ere.

dicho lugar como al animal acogido, así como las fechas de entrega y recuperación de los animales cedidos en acogida.

VII. TITULUA ZAINZA- ETA IKUSKAPEN- EGINKIZUNAK.

TÍTULO VII FUNCIONES DE VIGILANCIA E INSPECCIÓN.

28. artikulua.- Ikuskapen-jarduera

Artículo 28.- Actividad Inspectora

1. Ordenantza honetako ikuskapen- eta kontrol-eginkizunak betetzen dituzten langileak, eginkizun horiek betetzen dituztenean eta beren nortasuna egiaztatuz, agintaritzaren agente izango dira, legeria orokorrean eta administrazio-prozedurari buruzkoan aurreikusitako baldintzetan eta ondorioekin.
2. Langile horiek behar beste kontrol eta jarduketa egin ahal izango dituzte, ordenantza honetan eta aplikatu beharreko gainerako arauetan eskatzen diren baldintzak behar bezala betetzen direla egiaztatzeko.
3. Ikuskatzaileek probak egin ahal izango dituzte, eta beren eginkizunak betetzeko beharrezkoak diren jarduketa eta errekerimendu guztiak egin. Pertsona fisiko bat etxean sartu behar bada, haren berariazko baimena edo epailearen baimena izan beharko du.

1. El personal que desarrolle funciones de inspección y control de la presente Ordenanza, cuando ejerza tales funciones y acreditando su identidad, tendrá la condición de agente de la autoridad en los términos y con las consecuencias previstas en la legislación general y de procedimiento administrativo.
2. Dicho personal podrá llevar a cabo cuantos controles y actuaciones sean precisos para verificar el adecuado cumplimiento de los requisitos exigidos por la presente ordenanza y por el resto de normativa que resulte de aplicación.
3. El personal inspector podrá proceder a la práctica de las pruebas y realizar cuantas actuaciones y requerimientos sean precisos en ejercicio de sus funciones. En el caso de que se precise la entrada en el domicilio de una persona física, deberá contar con su consentimiento expreso o autorización judicial.

29. artikulua.- Funtzionario ikuskatzaileek salbuesenez behin-behineko neurriak hartzea

Artículo 29.- Adopción excepcional de medidas provisionales por personas funcionarias inspectoras

1. Ikuskapenaren arduradunak, edo, hala badagokio, Udaltzaingoak, larrialdi luzaezineko kasuetan eta modu arrazoitu eta proportzionalean, interesdunei entzun gabe, beharrezkotzat jotzen dituen behin-behineko neurri guztiak hartu ahal izango ditu, baldin eta animalien tratu txarren, gaixotasunaren, animalien bizitzarako arrisku-egoeraren eta/edo pertsonen segurtasunaren zantzuak ikusten baditu, animalien ongizaterako irizpide arrazionalekin eta haien eskubideen
1. La persona responsable de la inspección, o en su caso la Policía municipal, en los casos de urgencia improrrogable y de manera motivada y proporcional, podrá adoptar sin audiencia a las personas interesadas cuantas medidas provisionales estime necesarias cuando observara indicios de maltrato animal, enfermedad, situación de riesgo para la vida del animal y/o la seguridad de las personas, incompatibles con criterios racionales de bienestar animal y garantía de

bermearekin bateraezinak direnak. Horretarako, dagokion ikuskapen-akta egingo da, eta, bertan, haren arrazoia, helburua eta hartutako behin-behineko neurria justifikatuko dira, bai eta jarduketaren urgentzia luzaezina ere.

2. Behin-behineko neurriak honako hauek izan daitezke, besteak beste:
 - a) Aurreko paragrafoan deskribatutako egoeran dauden lagun egiteko animaliak behin-behinean kentzea.
 - b) Lagun egiteko animaliak aldi baterako atxikitzea, harik eta behin-behineko neurri hau eragin duten inguruabarrak/gertaerak ezabatu edo konpondu arte.
 - c) Zuzenketa-, segurtasun- eta kontrol-neurriak, kaltea eragiten jarraitzea eragotziko dutenak.
 - d) Arau-haustea prestatzeko edo gauzatzeko erabili diren ondasun, bitarteko edo tresnak konfiskatzea, eta, hala badagokio, arau-haustearen ondorioak konfiskatzea.
 - e) Lagun egiteko animalia dagoen aparkatutako ibilgailura sartzea, animalia erreskatatzeko, daramaten denbora edozein dela ere, betiere animalia biziaren bizitzarako berehalako arrisku larria dagoela uste bada.
3. Lagun egiteko animaliak erretiratzen badira, animaliak kontrolatzeko udal-zentrora edo lagun egiteko animaliak biltzeko establezimendu batera eramango dira, zaintzapean egon daitezten, eta lagun egiteko animalia titullarrak edo arduradunak ordainduko ditu sortutako gastuengatik ordaindu beharreko udal-tasak. Animalia albaitaritzaren miaketa egin beharko zaio, ordenantza honen 21.4 artikuluan jasotakoaren arabera.
4. Salbuespen gisa artikuluko honek arautzen dituen behin-behineko neurriak hartzea erabaki den kasuetan, berrogeita zortzi orduko epean dagokion zehapen-prozedura hasiko da, eta prozedura hasteko egintzan, zehapen-eskumenaren organo titullarrak,

sus derechos. A tal efecto, se levantará la oportuna Acta de Inspección donde se justificará su causa, finalidad y la medida provisional que se adopta, así como la urgencia improrrogable de la actuación.

2. Las medidas provisionales podrán consistir, entre otras, en:
 - a) Retirada provisional de aquellos animales de compañía en la situación descrita en el apartado anterior.
 - b) Retención temporal de aquellos animales de compañía, hasta que no se hayan eliminado o subsanado las circunstancias/hechos que motivan esta medida provisional.
 - c) Medidas de corrección, seguridad y control, que impida la continuidad en la producción del daño.
 - d) El decomiso de bienes, medios o instrumentos con los que se haya preparado o ejecutado la infracción y, en su caso, de los efectos procedentes de ésta.
 - e) El acceso al vehículo estacionado en cuyo interior se encuentre un animal de compañía, para rescatar al animal, independientemente del tiempo que lleve, siempre y cuando se considere que existe riesgo inminente y grave para la vida del animal.
3. En los supuestos de retirada, los animales de compañía serán trasladados al centro municipal de control animal o un establecimiento de recogida de animales de compañía para su custodia, siendo a cargo de la persona titular o responsable del animal de compañía el abono de las tasas municipales correspondientes por los gastos originados. El animal en cuestión habrá de ser sometido a la exploración veterinaria recogida en el artículo 21.4 de esta ordenanza.
4. En los casos en los que excepcionalmente se hayan acordado las medidas provisionales que regula este artículo, se procederá en un plazo de cuarenta y ocho horas a la incoación del correspondiente procedimiento sancionador, y en el acto de incoación el órgano titular de la

arrazoiak emanaz, hartutako neurriak errebokatu, mantendu edo aldatuko ditu.

5. Zehapen-prozedura hastea bidezkoa ez bada, hartutako behin-behineko neurria berretsi edo kendu egin beharko da, organo eskudunaren ebazpen baten bidez, epe berean.
6. Salbuespenez hartutako behin-behineko neurriak azkendu egingo dira, hartu zirenetik lau egun naturaleko epea igaro eta dagokion zehapen-espedita hasi edo hartutako neurria berretsi ez bada.

competencia sancionadora determinará, motivadamente, la revocación, mantenimiento o modificación de las medidas adoptadas.

5. En el caso de que no proceda la incoación de un procedimiento sancionador, la medida provisional adoptada deberá ser confirmada o levantada por resolución del órgano competente en igual plazo.
6. Las medidas provisionales adoptadas excepcionalmente se extinguirán una vez transcurrido el plazo de cuatro días naturales desde su adopción sin que se haya incoado el correspondiente expediente sancionador o ratificado la medida adoptada.

VIII. TITULUA

ZEHAPEN-ARAUBIDEA

I. KAPITULUA.- PRINTZIPIO OROKORRAK, PROZEDURA ETA ESKUMENA

30. artikulua.- Arduradunak

1. Ordenantza honetan arau-hauste gisa tipifikatutako ekintzak edo ez-egiteak egiten dituzten pertsona fisiko edo juridikoak dira erantzuleak, arlo zibilean edo penalean legokiokeen erantzukizunari kalterik egin gabe.
2. Ordenantza honetan aurreikusitako betebeharrak ez betetzea pertsona bati baino gehiagori badagokie, edo arau-haustea pertsona bati baino gehiagori egotz badakieke eta horietako bakoitzaren parte-hartze maila zehazterik ez badago, egiten diren arau-hausteen eta, hala badagokio, ezartzen diren zehapenen erantzule solidarioak izango dira. Era berean, jarduera utzi duten pertsona juridikoei ezarritako zehapenen erantzule subsidiarioak izango dira arau-haustea egiten den unean erakundearen administratzaile edo ahaldun orokorraren kargua dutenak.

TÍTULO VIII

RÉGIMEN SANCIONADOR

CAPÍTULO I.- PRINCIPIOS GENERALES, PROCEDIMIENTO Y COMPETENCIA

Artículo 30.- Personas responsables

1. Son personas responsables las personas físicas o jurídicas que incurran en las acciones u omisiones tipificadas como infracción en la presente Ordenanza, sin perjuicio de la responsabilidad que pudiera corresponder en el ámbito civil o penal.
2. Cuando el incumplimiento de las obligaciones previstas en esta Ordenanza corresponda a varias personas conjuntamente, o si la infracción fuera imputable a varias personas y no fuera posible determinar el grado de participación de cada una de ellas, responderán solidariamente de las infracciones que se cometan y, en su caso, de las sanciones que se impongan. Asimismo, serán responsables subsidiarias de las sanciones impuestas a las personas jurídicas que hayan cesado en su actividad quienes ocuparán el cargo de administrador o apoderado general de la entidad en el momento de cometerse la infracción.

31. artikulua.- Zehapen-prozedura

1. Hondarribiko Udalak zehatzeko ahala erabiltzen du, Euskal Administrazio Publikoen zigortzeko ahalmenari buruzko martxoaren 16ko 1/2023 Legearen, hori ordeztzen duen legearen eta hura garatzeko gainerako xedapen juridikoen arabera.
2. Arau-haustea delitu izan badaitezke, zehapena ezartzeko eskumena duen udal-organoak, hasteko erabakian, eskumena duen jurisdikzio-organo penalari jarriko dizkio egitateak, eta ez du zehapen-prozedurarekin jarraituko agintaritzaren judizialak epai irmorik edo prozedurari amaiera ematen dion ebazpenik eman arte, eta eten egingo da arau-haustearen preskripzio-epea.

Agintaritzaren judizialak zehapena ezartzen badu administrazio-zehapena ezartzea baztertuko da, subjektua, egitatea eta oinarria berberak direla ikusten den kasuetan. Deliturik egon dela baietsi ez bada, administrazioak zehapen-espeditoarekin jarraitu ahal izango du, jurisdikzio eskudunak frogatutzat jo dituen egitateetan oinarrituta.

Zehapen-prozedura administratiboa eteteak ez du eragozten hartutako kautela-neurriei eustea, betiere bateragarriak badira eremu prozesalean erabakitakoekin.

3. Zehapen-prozedura hasteko erabakian, udal-organo eskudunak kautelazko neurri hauek hartu ahal izango ditu, arrazoiak emanez, besteak beste:
 - a) Hartutako behin-behineko neurriak mantentzea edo aldatzea; kautelazko neurriak izango dira.
 - b) Lagun egiteko animaliak prebentzioz konfiskatzea eta zaintzea, zehapen-prozedura ebatzi arte non egongo diren zehaztuta.

Artículo 31- Procedimiento sancionador

1. El Ayuntamiento Hondarribia ejerce la potestad sancionadora conforme a la Ley 1/2023, de 16 de marzo, de la potestad sancionadora de las Administraciones Públicas Vascas, o Ley que la sustituya y demás disposiciones jurídicas de desarrollo.
2. En los supuestos en que las infracciones pudieran ser constitutivas de delito, el Órgano Municipal competente para imposición de la sanción, en el acuerdo de incoación dispondrá poner los hechos al órgano jurisdiccional penal competente y se abstendrá de proseguir el procedimiento sancionador mientras la autoridad judicial no hubiera dictado sentencia firme o resolución que ponga fin al procedimiento, quedando interrumpido el plazo de prescripción de la infracción.

La sanción de la autoridad judicial excluirá la imposición de sanción administrativa, en los casos en que se aprecie la identidad del sujeto, del hecho y del fundamento. De no haberse estimado la existencia de delito, la administración podrá continuar el expediente sancionador, con base en los hechos que la jurisdicción competente haya considerado probados.

La suspensión del procedimiento administrativo sancionador no impide el mantenimiento de las medidas cautelares adoptadas, siempre y cuando resulten compatibles con las acordadas en el ámbito procesal.

3. En el acuerdo de iniciación del procedimiento sancionador el Órgano Municipal competente podrá adoptar motivadamente entre otras las siguientes medidas cautelares:
 - a) El mantenimiento o modificación de las medidas provisionales adoptadas, que devendrán medidas cautelares.
 - b) La incautación preventiva de los animales de compañía y la custodia, con determinación del lugar de estancia hasta la resolución del procedimiento

c) Agintaritza eskudunak etxeko animaliak lekualdatzeko legez eskatutako dokumentuak ibilgetzea edo ez ematea.

4. Kautela-neurriak hartzeko arrazoiek irauten duten bitartean iraungo dute kautela-neurriek. Nolanahi ere, lagun egiteko animaliak kentzea ezin izango da luzatu espedientearen ebazpen irmoa baino gehiago, eta une horretan animalia behin betiko konfiskazioaren zehapena ezarri ahal izango da.

32. artikulua.- Prozedurako alderdi interesdunak

Instruitzen diren zehapen-prozeduretan, alderdi interesdun izango dira zehapen-prozeduraren jatorri den salaketa jarri duten elkarte eta erakundeak, edo animalien babesa jasotzen duten eta prozeduran pertsonatu diren estatutu-xedeak dituztenak.

33. artikulua.- Udal-organo eskudunak

Ordenantza honetan aurreikusitako arau-haustek egiteagatik zehapenak ezartzea honako hauei dagokie:

- a) Alkatetzari, arau-hauste arinak badira.
- b) Gobernu Batzordeari/Osoko Bilkurari, arau-hauste larriak edo oso larriak badira.

34. artikulua.- Arau-hausteen eta zehapenen preskripzioa

1. Ordenantza honetan aurreikusitako arau-haustek honela preskribatuko dira:

- a) Arina: urtebetera.
- b) Larria: bi urtera.
- c) Oso larria: hiru urtera.

2. Arau-haustearen preskripzio-epea arau-haustea egin zen egunetik hasiko da

sancionador.

c) La inmovilización o la no expedición, por parte de la autoridad competente, de documentos legalmente requeridos para el traslado de animales de compañía.

4. Las medidas cautelares durarán mientras persistan las causas que motivaron su adopción. En todo caso, la retirada de animales de compañía no podrá prolongarse más allá de la resolución firme del expediente, pudiendo en dicho momento establecerse la sanción del decomiso definitivo del animal.

Artículo 32.- Partes interesadas en el procedimiento

En los procedimientos sancionadores que se instruyan ostentarán la condición de parte interesada las asociaciones y entidades que hubieren interpuesto la denuncia origen del procedimiento sancionador o aquellas en cuyos fines estatutarios se recoja la protección animal y se hayan personado en el procedimiento.

Artículo 33.- Órganos municipales competentes

La imposición de sanciones por la comisión de las infracciones previstas en la presente Ordenanza corresponderá:

- a) A la Alcaldía, en el caso de infracciones leves.
- b) A la Junta de Gobierno/ Pleno, en el caso de las infracciones graves o muy graves.

Artículo 34.- Prescripción de infracciones y sanciones

1. Las infracciones previstas en la presente Ordenanza prescribirán:

- a) Leve: al año.
- b) Grave: a los dos años.
- c) Muy grave: a los tres años.

2. El plazo de prescripción de las infracciones comenzará a contarse desde el día en que la

zenbatzen. Arau-haustek modu jarraituan egin badira, epe hori arau-haustearen azken gertaera izan zen egunetik edo legez kontrako egoera ezabatu zenetik hasiko da zenbatzen.

3. Ezarritako zehapenek preskribatuko dute:

- a) Arau-hauste arinagatik: urtebetera.
- b) Arau-hauste larriagatik: bi urtera.
- c) Oso arau-hauste larriagatik: hiru urtera.

4. Zehapenen preskripzio-epea hasiko da kontatzen zehapena ezartzen duen ebazpena administrazio-bidean irmo bihurtzen den egunaren biharamunetik.

infracción se hubiera cometido. En los casos de infracción realizada de forma continuada, tal plazo se comenzará a contar desde el día en que se realizó el último hecho constitutivo de la infracción o desde que se eliminó la situación ilícita.

3. Las sanciones impuestas prescribirán:

- d) Por infracción leve: al año.
- e) Por infracción grave: a los dos años.
- f) Por infracción muy grave: a los tres años.

4. El plazo de prescripción de las sanciones comenzará a contarse desde el día siguiente a aquél en que adquiriera firmeza, en vía administrativa, la resolución por la que se impone la sanción.

35. artikulua.- AIEOri jakinaraztea

Zehapen-organo eskudunek AIEOri jakinaraziko diote arau-hauste larriak eta oso larriak egiteagatik zehapen-prozedurari amaiera ematen dion ebazpena.

II. KAPITULUA.- ARAU-HAUSTEAK

36. artikulua.- Arau-haustek

Lagun egiteko animalien babesaren eta eskubideen arloko arau-hauste administratiboak dira Ordenantza honetan halakotzat tipifikatutako ekintzak edo ez-egiteak, hurrengo artikuluetan deskribatutako sailkapenaren arabera.

- I. Arau-hauste arinak: Arau-hauste arintzat hartuko da egitez edo ez-egitez, eta konpainiako animalari kalte fisikorik edo portaera-aldaketarik eragin gabe, legez ezarritako debekuak, zaintzak edo betebeharrak ez betetzea dakarren jokabide oro, edo lagun egiteko animaliaen titularrek edo arduradunek administrazio-erantzukizunak ez betetzearen ondoriozkoak.

Zehazki, honako hauek joko dira arau-hauste arintzat:

1. Etxeko animalien kontrolik gabeko

Artículo 35.- Comunicaciones a R.E.G.I.A

Los órganos sancionadores competentes pondrán en conocimiento del R.E.G.I.A la resolución que ponga fin al procedimiento sancionador por la comisión de infracciones graves y muy graves.

CAPÍTULO II.- INFRACCIONES

Artículo 36- Infracciones

Constituyen infracciones administrativas en materia de protección y derechos de los animales de compañía, las acciones u omisiones tipificadas como tales en la presente Ordenanza, conforme a la clasificación descrita en el articulado siguiente.

- I. Infracciones leves: Se considera infracción leve toda conducta que por acción u omisión y sin provocar daños físicos ni alteraciones de su comportamiento al animal de compañía conlleve la inobservancia de prohibiciones, cuidados u obligaciones establecidas legalmente o las derivadas del incumplimiento de responsabilidades administrativas por parte de los titulares o responsables del animal de compañía.

En particular se consideran infracciones leves:

1. No adoptar medidas necesarias para



- ugalketa saihesteko beharrezko neurriak ez hartzea, bai eta katuak sei hilabete baino lehen ez esterilizatzea ere.
2. Txakurrak, katuak eta hudoak ez esterilizatzea, titularrek edo arduradunek eskualdatu aurretik.
 3. Lagun egiteko animaliak baldintza egokietan ez garraiatzea edo lagun egiteko animaliak Ordenantza honetako 6. artikuluan adierazitakoaren arabera ez garraiatzea.
 4. Lagun egiteko animaliei nahitaezkoak diren nahiz osasun-egoera onari eusteko beharrezkoak diren albaitaritza-tratamendu prebentiboak, aringarriak edo sendagarriak ez ematea.
 5. Ankerkeria, tratu txar edo sufrimendu simulatuak dakartzaten eszenak filmatzea, argazkiak ateratzea edo grabatzea edozein komunikazio euskarritan konpainiako animaliekin, agintaritzari aldeztu aurretik jakinarazi gabe.
 6. Lagun egiteko animaliek espaloietan, pasealekuetan, lorategietan eta hondartzetan eta oro har erabilera publikoko bide, espazio publiko eta pribatuetan uzten dituzten gorozkiak berehala ez ezabatzea.
 7. Fatxadetan, gainazal zolatuetan eta hiri-altzarrietan pixa berehala ez garbitzea urarekin eta/edo produktu biodegradagarriekin.
 8. Lagun egiteko animalia arrisku-egoeren mende jartzea, edo mina, beldurra edo estresa eragin diezaioketen egoeren mende jartzea, salbu eta lagun egiteko animalia laguntzaileak direnean, helburu duten jarduera zehatza gauzatzean.
 9. Edateko urik eta elikadura nahikorik, egokirik eta orekaturik ez ematea.
 10. Lagun egiteko animaliei ez ematea egoteko eta ostatu hartzeko espeziearen, tamainaren eta pisuaren
- evitar la reproducción incontrolada de los animales de compañía, así como la no esterilización de gatos antes de los seis meses de vida.
2. No esterilizar a los perros, gatos y hurones, previo a su transmisión por parte de las personas titulares o responsables de los mismos.
 3. No transportar en las debidas condiciones a los animales de compañía o no transportar a los animales de compañía de acuerdo con lo que se indica en el artículo 6 de la presente Ordenanza.
 4. No proporcionar los tratamientos veterinarios preventivos, paliativos o curativos, tanto aquellos que fueran obligatorios, como los necesarios para mantener el buen estado sanitario de los animales de compañía.
 5. Filmar, fotografiar o grabar en cualquier tipo de soporte comunicativo escenas con animales de compañía que conlleven crueldad, maltrato o sufrimiento simulados sin comunicación previa a la autoridad.
 6. No eliminar de forma inmediata las deyecciones que los animales de compañía depositen en las aceras, paseos, jardines y playas, en general en vías y espacios públicos y privados de uso público.
 7. No limpiar de forma inmediata con agua y/o productos biodegradables los orines en fachadas, superficies pavimentadas y mobiliario urbano.
 8. Someter al animal de compañía a situaciones de peligro o que puedan causarle dolor, miedo o estrés, salvo que se trate de animales de compañía auxiliares en el ejercicio de la concreta actividad a la que están destinados.
 9. No proveerles de agua potable y alimentación, suficiente, adecuada y equilibrada.
 10. No proporcionar a los animales de compañía un espacio de estancia y alojamiento dotado de la superficie,



- arabera egokiak eta beharrezkoak diren azalera, aireztapena, hezetasuna, tenperatura, argia eta aterpea dituen espaziorik.
11. Bizitokiak higie- eta osun-baldintza egokietan ez edukitzea, garbituta, desinfektatuta eta intsekturik gabe, eta lagun egiteko animaliak dauden lekuetatik haien gorotzak eta pixa ez kentzea.
 12. Lagun egiteko animaliak identifikatu eta erregistratzeari buruzko betebeharrak ez betetzea.
 13. AIOAn nahitaez adierazi beharreko datuen aldaketak aurreikusitako epeetan jakinarazteko betebeharra ez betetzea.
 14. Txakurrak, katuak eta hudoak gutxienez jaio eta bi hilabete igaro baino lehen ematea edo lagatzea.
 15. Lagun egiteko animalien gorpuk ezabatzea, identifikazioa egiaztatu gabe identifikazioa nahitaezkoa denean, eta administrazio eskudunari ez jakinaraztea identifikatutako lagun egiteko animalia baten gorpua ezabatu dela.
 16. Txakurren, katuen eta hudoen gorpuk bide publikoetan edo zaborra biltzeko edukiontzietan uztea.
 17. Kalteak eragin ditzaketen lagun egiteko animalien zaintzan behar bezalako arreta ez izatea.
 18. Espazio publikoetan, txakur-espezieko animaliak ez eramatea lagun egiteko animalien ezaugarrietara egokitutako gehienez ere bi metroko luzera duen uhal batez lotuta.
 19. Espazio publikoetan, lagun egiteko animaliak haien zaintzaz eta portaeraz arduratzen den pertsonak aurrez aurre gainbegiratu gabe joan-etorrian mantentzea, eta lagun egiteko animaliak beti kontrolatuta eta lotuta ez edukitzea, lagun egiteko animalien espezieari, arrazari, tamainari eta beste ezaugarri batzuei ventilación, humedad, temperatura, luz y cobijo adecuados y necesarios en función de su especie, tamaño y peso.
 11. No mantener los alojamientos en las debidas condiciones higiénico-sanitarias, limpios, desinfectados y desinsectados, así como, no retirar en los lugares de estancia de los animales de compañía sus excrementos y orines.
 12. Incumplir las obligaciones relativas a la identificación y registro de los animales de compañía.
 13. Incumplir la obligación de comunicar las modificaciones de los datos de declaración obligatoria en el R.E.G.I.A en los plazos previstos.
 14. Donar o ceder perros, gatos y hurones antes del transcurso de 2 meses como mínimo desde su nacimiento.
 15. La eliminación de cadáveres de animales de compañía sin comprobar su identificación, cuando ésta sea obligatoria, y la no comunicación a la administración competente de la retirada del cadáver de un animal de compañía identificado.
 16. Depositar cadáveres de perros, gatos y hurones en cualquier vía pública o en los contenedores de recogida de basuras.
 17. No mantener la debida diligencia en la custodia y guardia de animales de compañía que puedan causar daños.
 18. En los espacios públicos, no llevar a los animales de la especie canina sujetos por una correa adecuada a las características del animal de compañía y con una longitud máxima de dos metros.
 19. En los espacios públicos, mantener deambulando a los animales de compañía sin la supervisión presencial por parte de la persona responsable de su cuidado y comportamiento, así como no mantener a los a los animales de compañía siempre controlados y sujetos mediante elementos de sujeción adecuados a su

egokitutako euste-elementuen bidez.

20. Aire zabalean irekita dauden eta haurren jolasguneetarako, parke bioosasungarrietarako eta kirol anitzeko pistetarako diren bide eta espazio publikoetan lagun egiteko animaliekin sartzea eta egotea, bai eta 7.2. artikuluan jasotako debekuak ez betetzea ere.
 21. Udalerriko hondartzetan txakurrekin sartzea edo egotea, 7.3 artikuluan xedatutakoaren arabera gaitutako garai, ordutegi-tarte edo hondartza-tarteetatik kanpo.
 22. Agintaritza eskudunak lagun egiteko animalien ongizatea, osasun publikoa eta segurtasuna bermatzeko ematen dituen errekerimenduak eta administrazio-ebazpenak ez betetzea. Era berean, ez jaramonik egitea agintariek emandako jarraibideei, txakurrek lagun egiteko beste animalia batzuei edo pertsoneri erasoz gero.
 23. Kontrol-eginkizunak betetzeko Administrazioari beharrezko informazioa eta dokumentuak ez ematea edo okerreko dokumentazioa ematea.
 24. Udalak horretarako baimenik eman ez dien pertsonen lagun egiteko animalientzako elikagaiak bide publikoan eta espazio publikoetan, orubeetan eta antzekoetan uztea.
 25. Katu-kolonietako zaintzaileen lana eragoztekoa edo oztopatzea.
 26. Lagun egiteko animaliak egunaren zati bat kanpoan edo terraza eta balkoietan uztea, eguraldi txarretik babesteko aukerarik gabe, bereziki bero, euri edo hotz handiko egunetan.
 27. Animalia biziak erakusleihen komertzialetan edo bide publikotik ikus daitezkeen gunetan erakustea.
 28. Konpainiako animaliak tindatzea, erakargarri egiteko, merkaturatzeko
- especie, raza, tamaño y otras características del animal de compañía.
 20. Acceder y permanecer con animales de compañía en las vías y espacios públicos, abiertos al aire libre destinados a zonas de juegos infantiles, parques biosaludables y pistas multideporte, así como el resto de incumplimiento de las prohibiciones recogidas en el art. 7.2.
 21. Acceder o permanecer con perros en las playas del municipio fuera de las épocas, franjas horarias o tramos de playa habilitados conforme a lo dispuesto en el artículo 7.3.
 22. No dar cumplimiento a los requerimientos y resoluciones administrativas que la autoridad competente dicte para garantizar el bienestar animal de compañía, salud pública y seguridad. Así como hacer caso omiso a las indicaciones de las autoridades en caso de agresiones ocasionadas por perros a otros animales de compañía o a personas.
 23. No suministrar la información y documentos necesarios para realizar las funciones de control o suministrar documentación errónea a la Administración.
 24. Depositar alimentos para animales de compañía en la vía pública y espacios públicos, solares y similares por personas que no hayan sido autorizadas por el Ayuntamiento con ese fin.
 25. Molestar o entorpecer la labor de los cuidadores de colonias felinas.
 26. Mantener parte del día a animales de compañía en el exterior o en terrazas y balcones sin la posibilidad de protegerse de las inclemencias del tiempo, especialmente en día de calor, lluvias o frío intenso.
 27. Exhibir animales vivos en escaparates comerciales o en zonas visibles desde la vía pública.
 28. Teñir a los animales de compañía con objeto de hacerlos atractivos, para su



edo ikuskizunetarako edo adierazpen artistikoaren euskarri gisa, betiere kalterik ez badu.

29. Animaliak etengabe kontrolatu eta zaindu ezin diren leku edo espazioetan edukitzea
30. Lagun egiteko edozein animalia 24 orduz bakarrik uztea, eta txakur-espeziearen kasuan 12 orduz jarraian, eta artzain-txakurrak badira gehienez 48 orduz.
31. Edozein tituluren bidez, identifikaziorik edo erregistrorik gabeko animalia bat eskuratzea, identifikazioa edo erregistroa nahitaezkoa denean Ordenantza honetan ezarritako baldintzetan.
32. Etxeko katuen arduradunek uztea esterilizatu gabeko katuak kanpora ateratzen eta komunitateko katuekin ugaltzen.
33. Ordenantza honetan larritzat edo oso larritzat jotzen ez den beste edozein arau-hauste.

II. Arau-hauste larriak: Arau-hauste larritzat joko da egitez edo ez-egitez, betebeharrak ez betetzearen edo debekatutako jokabideak egitearen ondorioz, lagun egiteko animaliarik kaltea edo sufrimendua eragiten dion jokabide oro, betiere heriotza edo ondorio larriak eragiten ez badizkiote.

Zehazki, honako hauek hartuko dira arau-hauste larritzat:

1. Lagun egiteko animaliei nahita lesio fisikoak eragitea.
2. Lagun egiteko animaliei beharrezkoak ez diren sufrimenduak edo kalteak eragin diezazkieketen substantziak ematea.
3. Lagun egiteko animaliei tratu iraingarria ematea edo beren izaerari ez dagozkion portaerak edo jarrerak egitea, salbu eta lagun egiteko animalia laguntzaileak direnean, xede

comercio o espectáculo o como soporte de expresión artística, siempre que no tenga lesiones.

29. Mantener animales en lugares o espacios donde no pueda ejercerse sobre ellos un adecuado control, atención y vigilancia de forma constante
30. Dejar solo cualquier animal de compañía durante 24 horas y en el caso de la especie canina 12 horas consecutivas, perros de pastoreo un máximo de 48 horas
31. Adquirir, por cualquier título, un animal sin identificación o registro, cuando ello resulte obligatorio en los términos establecidos en la presente Ordenanza
32. Permitir por parte de los responsables que gatos caseros sin esterilizar tengan acceso al exterior y se reproduzcan con los gatos comunitarios
33. Cualquier otra infracción no tipificada en esta Ordenanza como grave o muy grave.

II. Infracciones graves: Se considera infracción grave toda conducta que por acción u omisión y derivada del incumplimiento de las obligaciones o de la realización de conductas prohibidas impliquen daño o sufrimiento para el animal de compañía, siempre que no le causen la muerte o secuelas graves.

En particular, se consideran infracciones graves:

1. Infligir de manera intencionada lesiones de carácter físico a los animales de compañía.
2. Suministrar a los animales de compañía, sustancias que puedan causarles sufrimientos o daños innecesarios.
3. Someter a los animales de compañía a trato vejatorio o a la realización de comportamientos o actitudes impropias de su condición, salvo que se trate de animales de compañía

du ten jarduera zehatza gauzatzerakoan.

4. Lagun egiteko animaliak beren gaitasuna gaintitzen duen edozein jardueratan parte hartzera behartzea, bereziki gaixorik dauden, nekatuta dauden, ernari dauden edo sei hilabete baino gutxiago dituzten lagun egiteko animaliak direnean.
 5. Lagun egiteko animaliak dohaintzan ematea, hala nola publizitate-erreklamazio, sari, truke, edo zozketa gisa, edo konpainiako animalien kostu bidezko transakzioa ez den beste erosketa batzuegatik konpentsazio gisa.
 6. Lagun egiteko animaliei albaitaritza-laguntza egokia ez ematea, ageriko gaitz edo sufrimendu larrien aurrean.
 7. Lagun egiteko animaliak etengabe lotuta edo ibilgetuta edukitzea. Era berean, lagun egiteko animaliak lotuta edukitzea, lagun egiteko animaliarik kalteak edo sufrimendua eragiteko moduan.
 8. Lagun egiteko animaliak aireztapenik eta tenperatura egokirik gabe aparkatutako ibilgailuetan aldi baterako edukitzea, lagun egiteko animaliarik kalteak edo sufrimendua eragiten badizkio.
 9. Legeak debekatutako ikuskizunetan ikusle gisa parte hartzea.
 10. Lagun egiteko animalia arrisku-egoera amaitzeko agintaritzak hartutako behin-behineko neurriak, kautelazkoak edo irmoak, eta zehapen osagarriak urratzea.
 11. Lagun egiteko animalia bat ibilgailuz harrapatuz gero, ez ematea laguntzarik, ezinbesteko kasuetan izan ezik.
 12. Pertsonen eraso egiten bazaie, ez betetzea norberaren titulartasuneko edo erantzukizuneko lagun egiteko
- auxiliares en el ejercicio de la concreta actividad a la que estén destinados.
 4. Obligar a los animales de compañía a participar en cualquier tipo de actividad que supere su capacidad, en especial cuando se trate de animales de compañía enfermos, fatigados, gestantes o menores de seis meses.
 5. Donar animales de compañía, como reclamo publicitario, recompensa, intercambio, sorteo, rifa, trueque, premio o compensación por otras adquisiciones de naturaleza distinta a la transacción onerosa de animales de compañía.
 6. No prestar a los animales de compañía asistencia veterinaria adecuada ante dolencias o sufrimientos graves y manifiestos.
 7. Mantener atados o inmovilizados permanentemente a los animales de compañía. Así como, mantener a los animales de compañía atados en condiciones que provoquen daños o sufrimiento para el animal de compañía.
 8. Mantener temporalmente a los animales de compañía en vehículos estacionados sin ventilación y temperatura adecuada cuando implique daños o sufrimiento para el animal de compañía.
 9. Participar como espectador o espectadora en espectáculos prohibidos por la ley.
 10. Quebrantar las medidas provisionales, cautelares o firmes, adoptadas por la autoridad para poner fin a la situación de riesgo para el animal de compañía, así como de las sanciones accesorias.
 11. En los supuestos de atropello de un animal de compañía, no prestarle asistencia salvo en los casos de fuerza mayor.
 12. En caso de agresión a personas, incumplir la obligación de someter al animal de compañía de su titularidad



- animalia norberak aukeratutako albaitari elkargokideak behatzeko betebeharra, ordenantza honen 15. artikuluan xedatutakoaren arabera.
13. Zigor-lepokoak erabiltzea, hala nola pintxo-lepokoak, itotzeko lepokoak, deskarga elektrikoko lepokoak eta horien erabilerak mina, ondoez fisikoa eta/edo psikologikoa eragiten duen beste edozein lepoko.
 14. Katu-kolonietako katuen ongizatea arriskuan jartzen duen edozein portaera.
 15. Espezie taldekoiak badira, gizakiarengandik edo beste animalia batzuegandik etengabe isolatuta edukitzea.
 16. Mikrotxipa edo animalia identifikatzeko beste edozein elementu ateratzea.
 17. Katu-koloniak, toberak, janlekuak edo bandalismoko edozein ekintza suntsitzea katu-kolonia horiek dauden eremuetan.
 18. Animaliak haztea edo salerostea, horretarako baimenik izan gabe, edo legez ezarritako establezimenduetatik kanpo egitea.
 19. Metodo oldarhorrak edo bortitzak erabiltzea lagun egiteko animalia baten portaera hezteko edo zuzentzeko.
 20. Komunitateko katuak baimendutakoak ez diren egoeretan kentzea edo lekuz aldatzea.
 21. Lagun egiteko animalia bat lapurtzea, ebastea edo bidegabe horretaz jabetzea.
 22. Lagun egiteko animaliak galdu direla ezarritako epeetan ez jakinaraztea, bai eta lagun egiteko animalia bat harrapatzea ere, eta agintariei harrapaketa berri berehala ez ematea.
 23. Ordenantza honen ondorioetarako, hiru o responsabilidad a observación por parte del personal profesional veterinario colegiado, de su elección, conforme lo dispuesto en el artículo 15 de esta ordenanza.
 13. La utilización de los collares de castigo, como los collares de pinchos, los collares de estrangulamiento, collares de descargas eléctricas y cualquier otro tipo de collar que su uso provoque dolor, malestar físico y/o psicológico.
 14. Cualquier comportamiento que ponga en riesgo el bienestar de los gatos pertenecientes a las colonias felinas.
 15. Mantenerlos permanentemente aislados del ser humano u otros animales en caso de tratarse de especies gregarias.
 16. Extraer el microchip o cualquier otro elemento identificativo del animal.
 17. Destruir gateras, tolvas, comederos o cualquier acción de vandalismo en las áreas donde se encuentren dichas colonias felinas.
 18. Criar o comerciar con animales sin disponer de la correspondiente autorización o hacerlo fuera de los establecimientos legalmente establecidos.
 19. El uso de métodos agresivos o violentos en la educación o corrección del comportamiento de un animal de compañía.
 20. La retirada, reubicación o desplazamiento de gatos comunitarios en situaciones distintas a las permitidas.
 21. El robo, hurto o apropiación indebida de un animal de compañía.
 22. No notificar el extravío de los animales de compañía en los plazos establecidos, así como atropellar a un animal de compañía y no comunicar de forma inmediata a las autoridades el atropello.
 23. La comisión, a efectos de esta

arau-hauste arin edo gehiago egitea bi urteko epean.

Ordenanza, de 3 o más infracciones leves en el plazo de dos años.

III. Oso arau-hauste larriak: oso arau-hauste larritzat joko da, oro har eta jarraian tipifikatutako beste jokabide batzuk alde batera utzita, egitez edo ez-egitez, betebeharrak ez betetzearen edo debekatutako jokabideak egitearen ondorioz, lagun egiteko animalia heriotza edo ondorio larri iraunkorrak eragiten dituen jokabide oro.

III. Infracciones muy graves: Se considerará infracción muy grave, con carácter general y al margen de otras conductas tipificadas a continuación, toda conducta que por acción u omisión y derivada del incumplimiento de las obligaciones o de la realización de conductas prohibidas provoque la muerte del animal de compañía o secuelas graves permanentes.

Bereziki, honako hauek dira oso arau-hauste larriak:

1. Lagun egiteko animaliak esterilizatzea eta hiltzea, bai eta antzeko beste edozein esku-hartze egitea ere, legez ezarritako baldintza eta betekizunen aurka, albaitariaren kontrolik gabe.
2. Lagun egiteko animaliei tratu txarrak ematea, ebakuntza kirurgikoak eta mutilazioak eginez, baldin eta horien helburua animalia baten itxura aldatzea edo albaitaritzako medikuntzari dagokionez sendagarriak ez diren helburuak lortzea bada, eta heriotza edo ondorio larri iraunkorrak eragitea.
3. Lagun egiteko animaliei eraso bidez tratu txarrak ematea, heriotza edo ondorio larri iraunkorrak eraginez.
4. Lagun egiteko animaliei tratu txarrak ematea, heriotza edo ondorio larri iraunkorrak eraginez, alkohola, drogak edo botikak emanez, justifikazio terapeutikorik edo albaitariaren agindurik gabe, agindua nahitaezkoa izanik.
5. Lagun egiteko animaliei tratu txarrak ematea, elikagaiak eta edaria eman gabe, eta hala heriotza edo ondorio larri iraunkorrak eragitea.
6. Lagun egiteko animaliei tratu iraingarria emanez edo beren izaerari ez dagozkion portaerak edo jarrerak gauzatuz tratu txarrak ematea, heriotza edo ondorio larri iraunkorrak

En particular se consideran infracciones muy graves:

1. Esterilizar, sacrificar animales de compañía, así como cualquier otra intervención similar en contra de las condiciones y requisitos legalmente establecidos, sin control veterinario.
2. Maltratar a los animales de compañía mediante la práctica de intervenciones quirúrgicas y mutilaciones cuyo objeto sea modificar la apariencia de un animal o conseguir fines no curativos en relación con la medicina veterinaria, causándoles la muerte o secuelas graves permanentes.
3. Maltratar a los animales de compañía mediante una agresión causándoles la muerte o secuelas graves permanentes.
4. Maltratar a los animales de compañía causándoles la muerte o secuelas graves permanentes mediante el suministro de alcohol, drogas o fármacos sin justificación terapéutica ni prescripción veterinaria, cuando sea preceptiva.
5. Maltratar a los animales de compañía no proporcionándoles alimentos y bebida cuando les ocasione la muerte o secuelas graves permanentes.
6. Maltratar a los animales de compañía mediante su sumisión a trato vejatorio o a la realización de comportamientos o actitudes impropias de su condición cuando les ocasione la muerte o



Hondarribiko
Udala

eragiten badizkiete.

7. Lagun egiteko animaliei tratu txarrak ematea, haien gaitasuna gaitzen duen edozein jardueratan parte hartzea behartuz, bereziki animalia gaixoen, nekatuen, ernarien edo sei hilabetetik beherako kasuan, heriotza edo ondorio larri iraunkorrak eragiten badizkie.
8. Pozoiutako edo elementu zorrotzak dituzten elikagaiak botatzea eta etxeko animalientzako pozoia barreiatzea bide eta espazio publiko edo pribatuetan.
9. Lagun egiteko animaliekin edozein komunikazio-euskarritan, ankerkeria edo itxuratu gabeko sufrimendua dakarten eszenak filmatzea, argazkiak ateratzea edo grabatzea.
10. Lagun egiteko animaliak modu oldarkorrean edo bortitzean heztea edo borroketan parte hartzeko prestatzea.
11. Lagun egiteko animaliekin edo haien artean borrokek eragitea, sustatzea edo antolatzea.
12. Lagun egiteko animaliak erabiltzea borroketan edo erasoetan parte hartzeko.
13. Lagun egiteko animaliak abandonatzea.
14. Arriskutsuak izan daitezkeen txakurrak 12 hilabete bete baino lehen ez esterilizatzea.
15. Ordenantza honen ondorioetarako, bi urteko epean 2 arau-hauste larri edo gehiago eragitea.

secuelas graves permanentes.

7. Maltratar a los animales de compañía obligándoles a participar en cualquier tipo de actividad que supere su capacidad, en especial cuando se trate de animales enfermos, fatigados, gestantes o menores de seis meses, cuando les ocasione la muerte o secuelas graves permanentes.
8. Depositar alimentos emponzoñados o con elementos punzantes y esparcir veneno para animales de compañía, en vías y espacios públicos o privados.
